

## **«Lauki-ehizaria» UNITATE DIDAKTIKOA**

### **Eduki-elementuak**

Ikasleak hormako taulako laukietara imanak edo plastilina-zatiak botatzen saiatuko dira, aurrez ezarritako eta irakasleak esandako laukietan asmatzen. Horrela, produktu kartesiarra eta besoen mugimenduaren koordinazioa landuko da.

### **Pizgarria**

-Haurrek gauzak jaurtitzeko duten berezko joera, bihurrikeria, erabiltzea.

### **Helburuak:**

1. Ezagutzakoak:
  - a. Taula ezagutzea, eta produktu kartesiar moduan irudikatzea (HEZKUNTZA-TRANSFERENTZIA, matematika).
2. Afektiboak:
  - a. Bihurrikeria, oldarkortasuna bideratzea.
  - b. Taldea baretzea, desinhibitzea.
3. Psikomotorrak:
  - a. Besoen eta ikusmenaren koordinazioa praktikatzea, jaurtiketarako.
  - b. Motrizitate larria lantzea jaurtiketan, eta motrizitate xehea plastilinazko jaurtigaiak egitean.

### **Bitartekoak:**

- Hormako taula
- Koloretako plastilinak, jaurtigaiak egiteko.